




BARREN

TOKIKOM

Euskara ala
ezkara ertzetan?



Koldo Aranburu Osa

2021eko urriaren 20an hil zen,
67 urte zituela.



*Gaztetan gure bihotzek
egin zuten batasuna,
ez gendun nahi ezta espero
gaur degun biharamuna.
Zure arimak lortu dau
bihar dan askatasuna,
hutsune haundiegixa
gurian uzten dozuna.
Zintzua eta leiala
zure berezitasuna,
ta ambientia jartzeko
behar dan alaitasuna,
zurekin eraman dozu
sentipenen maitasuna,
gure artian betirako
geratzen zera, laguna.*

Zure lagunak




Pako Kortaberria Unzueta

"Sagartei"

2021eko urriaren 11n hil zen, 92 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Ez agurrik, ez adiorik; gero arte bakarrik.



Eskertzak eta urteurrenak
943 743 704 / 688 769 657
Aita Agirre Kulturgunea, 3. 3. ezk
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



I. URTEURRENA

Ciriaco Azkoaga Ubera

2020ko urriaren 17an hil zen, 73 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza
izango da, domekan, urriaren 24an, 11:30ean,
Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

***Joan zinen gu hemen utzita,
baina jakin ezazu,
inoiz ez zaitugula ahaztuko.***

Etxekoak



JUAN LUIS MUGERTZA

Idazlea



Euskal pilota

nuen. Hori bai, geuk aukeratzetzen genuen gustuko pilota. Geuk erabakitzen genuen norkin jolastu. Orduantxe ikasi genuen pilotan txukun egiteko ezkerre ondo erabiltzea ezinbestekoa zela eskumari irabazteko, paretaren kontra jartzeko. Baina hori dena, umeak ginelarik. Gero, koskortzen joan ginen, eta orduko jolasak joko itxura hartu zuen. Egunero inposatutako arauak pilotalekuaren motz eta luzeraren arteko lerroetan bizi izatera mugatu gintuzten, eta gustuko pilota aukeratzeko abagunea ere galdu genuen. Harrezkerotik, eskuma baino erabiltzen ez duten mandatariek aukeratutako erdipurdiko pilota motelak baino ez ditugu aukeran izan ohi. Halarik ere, ezin gara itxurako kaiola batean bizi. Ezin gara pilotaren jabeari begira egon. Ezin gara kanpoan gelditu.

Izan ere, herri honek pilotari oso onak izan ditu beti, arerioaren aurrean duintasuna erakusteko prest egon direnak, tanto alde aurretik inoiz galdutzat hartu ez dutenak, galdutako jokoaren bizitasuna bestelako norabidetik ekarriko dutenak. Bai, horrelakoak behar ditugu. Ez dut uste ordukoak praka motzak jantzita jolasteko moduan egongo garenik, baina geure ondorengoei erakutsi behar diegu oraingo joko motelak herri honen geroa galbidera eramango duela. Ea asmatzen dugun euskaldunok indarra metatzen, eta euskal pilota gogor astintzen. Unea da txandaka aritzeko, ilusioa pizteko, eta saskian urte askotan preso dituzten pilotariak berriro herriko frontoietan ikusteko. Baina horretarako joko ona erakutsi behar dugu: zabalera, txokora, atzera, aurrera, eta ezkerre.

Gaztetan, enparantzako arkupeetan zein frontoian txandaka aritzen ginen pilotan: "Orain zuek, gero gu". Inork ez zuen inor gutxiesten. Inork ez zuen inor baztertzen. Honelaxe erakutsi ziguten aurrekoek, eta honelaxe egiten genuen besteok. Guk, orduan, ezer gutxi genekien parte hartzeaz, baina guztiok hartzen genuen parte. Guk ezer gutxi genekien politikaz, baina elkar hartzen genuen. Guk ezer gutxi genekien demokraziaz, baina elkar errespetatzen ge-

"Halarik ere, ezin gara itxurako kaiola batean bizi.

Ezin gara pilotaren jabeari begira egon. Ezin gara kanpoan gelditu"



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Eusko Legebiltzarreko Argitaletxea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

barren@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEK ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako enantzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Sara Iriondo, Asier Guisasaola **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jarzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ZER IZANGO OTE DA HURRENGOA

Urriaren 12an, 19:00ak aldera, kiroldegiko igerileku berrien gaineko aparkalekutik urez beteriko botila bota ziguten gazteei zuzenduta doa gutun hau: elgoibartarrak, 14-16 urte bitarte inguruko mutil euskaldunak. Egin zenutena oso larria izan zen. Ia ia 6 urteko gure semea jo zenuten! Indarrez bota zenuten botila eta norbait jotzeko asmoz bota zenuten! Zoritxarrez, gure semea hartu zenuten dianatzat. Oso ausartak! Umea jo izan bazenute, ez dut imajinatu ere egin nahi zein izan zitekeen ondorioa. Horrelako kolpe batek buruan edo lepoan emanaz gero, pertsona bat hil dezake! Eta ez da broma.

Zuetariko pare bat harrapatu zintuztegun eta aitortu zeniguten ez zela horrelakoren egiten zenuten lehen aldia. Denbora-pasa modura hartu duzuen entretenimendu berri bat izango balitz bezala azaldu zenuten. Auzoko jendearekin hitz egin ondoren, asteburuan zehar urez beteriko globoak botatzen ibili omen zineten leku beretik beheko kaleko kotxeetara. Guri urez beteriko botila bat bota zeniguten. Hurrengoa zer izango da? Egindakoa oso larria izan zen eta pasatu zitekeenaren inguruan hausnarketa bat egiteko eskatu nahi dizuegu. Udaltzaingoari eman genion gertatutakoaren abisua, baina auzora igo zirenerako berandu zen. Espero dugu Udalak neurriak hartzea. Badakigu etxean hezten dela, eta etxean landu behar den kontua dela, baina oso zaila da etxetik kanpo gure seme-alabek egiten duten guztia kontrolatzea. Horregatik, zenbait gauza ekiditen lagundu ditzaketen neurriak Udaletik bertatik hartzeko eskatzen dugu. Eskerrik asko.

M.O.A.

► LARUNBATEAN HITZORDUA DUGU DONOSTIAN

Hitzordu garrantzitsua. Azken urteetan egindako lanari esker lortu dugu ez egotea euskal preso politikorik Madrildik behera, lortu dugu ez egotea ia euskal presorik lehen graduan (espetxeetako egoerarik gogorrena). Herriarrian mobilizazioen, alderdi, sindikatu, erakunde eta abarrei esker eman dira aurrerapauso hauek, baina salbuespeneko espetxe politikak hor jarraitzen du. Egun, euskal presoen % 32 daude Euskal Herriko espetxeetan, eta, legez, euskal herritarren diren heinean, zigorra hemengo espetxeetan betetzea dagokie. Bestetik, ia preso denak bigarren graduan

daude, baina soilik hamar presok lortu dute hirugarren gradua (baimenak, askatasuna...) hain zuzen ere, hainbat epailek eta fiskalek espetxean bertan hartutako erabakien aurka egiten dutelako.

Gogoratu nahi dugu espetheen eskumenak Eusko Jaurlaritzaren eskura pasatu direla eta horrek erraz dezake beste mota bateko espetxe politika martxan jarzea. Baina argi esan nahi dugu ohiko eta ez salbuespeneko espetxe politika dagokiela euskal preso guztiei. 10 urte bete dira Aieteko konferentziatik eta ETAk armak utzi zituenetik. Biktimen gaiarekin batera, euskal preso, iheslari eta deportatuen egoera konpondu beharrekoak direla jasotzen da bertan. Kostata, baina ari dira mugitzen gauzak. Bultza egiten jarraitu behar dugu salbuespeneko politiken aurka, eta giza eskubideen, konponbidearen eta bakearen alde. Bihar Donostian aukera ederra daukagu, 17:00etan Antiguako tuneletik irtengo den manifestazioan parte hartuz.

SARE ELGOIBAR

► MUGURUZA ESKOLAREN ERAISKETA

Muguruza eskola zaharren eraisketaren inguruan Elgoibarko EHBildutik ditugun kezka eta zalantzak adierazi nahiko genituzke. Elgoibarko EH Bildu eta Podemos alderdiek Udal Gobernutik hartutako erabaki honi honi buruz gutxiengo zoru komun bat lortu nahian, hausnarketa tarte bat zabaldu nahi izan genuen bere mantenua edo eraisketaren inguruan eztabaida gune bat sortzeko. Gai honi buruz lurralde batzordean Udal Gobernuaren aldetik hitz egiteko borondaterik ez zegoenez, iraileko Osoko Bilkuran mozio bat planteatu genuen Podemos alderdiarekin batera.

Eraikin hau herritar guztien ondare publiko bat izanik, ondo hausnartu gabeko erabaki batek galera handia suposa dezake herritarrentzat etorkizunerako. Udal gobernua ezetza eman zion gure planteamenduari. EH Bildurentzat gai hauei buruz herritarrekin adostasuna lortzea ezinbestekoa da, mota honetako erabakiek ez dutelako atzera bueltarik. Gure iritziz, ezaugarri hauetako eraikin bat mantentzea edo eraistea erabakitzeko zentzuz jokatu beharra daukagu.

ELGOIBARKO EH BILDU



Maria Angeles Vila Fernandez

2021eko urriaren 14an hil zen, 58 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Iazko etenaren ostean, Gabonetako ekintza nagusiak antolatuko dituzte berriro

Covid-19aren bilakaera hobetu den heinean, Elgoibarko Udala kultur egitaraua berreskuratzen hasi da, eta aste honetan iragarri dute Eguberrietako hainbat ekintza berreskuratuko dituztela aurten. Besteak beste, Atxutxiamaikarekin elkarlanean Olentzeroren kalejira antolatuko dute abenduaren 24rako, Gabon Zahar Feria ere egingo dute abenduaren 31n eta urtarrilaren 5ean Errege Magoen desfilea egongo da. Gabon Zahar Ferialen saltokia jarri nahi dutenek azaroaren 26ra arteko epea dute izena emateko. Interesatuak www.elgoibar.eus atarira bitartez eman beharko dute izena.

Tonbola ere bai

Elgoibarko Izarra kultur elkarteak ere Tonbola antolatzea erabaki du. Abenduaren 24an egingo dute, Kalegoen plazan. Herriko komertzio, ostalari eta enpresen laguntzarekin osatzen dute tonbola, eta jakinarazi dute laster hasiko direla opariak eskatzen.

Erakusleihen lehiaketa

Herriko saltokietako kontsumoa sustatu eta Gabonetan zehar kaleak animatzeko asmoz, Gabonetako Erakusleihen Lehiaketaren bigarren ekitaldia antolatu du Elgoibarko Udalak. Gaia Gabonak izango da, eta edozein establezimenduk hartu dezake parte. Udalak Gabonetako objektu berbera emango die parte



hartzen duten establezimendu guztiei, eta objektu hori erakusleihoan egon beharko da, establezimendu bakoitzak diseinatzen duen dekorazioaren artean. Parte hartu nahi duten erakusleihoei abenduaren 9an egon beharko dute jarrita, eta 2022ko urtarrilaren 6ra arte ezin izango da dekorazioa aldatu. Abenduaren 9, 10 eta 11 bitartean erakusleihoguztiek argazkiak aterako dizkiete Udalaren webgunean jartzeko. 2021eko abenduaren 14tik 2022ko urtarrilaren 6ra bitartean, herritarrek erakusleihogustuko-enak bozkatzeko dituzte Udalaren web orriaren bidez. Lehen saria 300 eurokoa izango da, bigarrena 200 eurokoa eta hirugarrena saria 100 eurokoa. Iaz 30 establezimenduk hartu zuten parte eta Ortopedia Sarasketa eta Noa saritu zituzten.

Herriari Gabon itxura emateko, argiak jarriko dituzte aurten ere, eta dagoeneko hasi dira argiak jartzeko aurrelanak egiten. Abenduaren 3an piztuko dituzte.

1.57.000 euro banatu ditu Udalak herriko ikastetxeen artean heziketa-jarduerak egiteko

Elgoibarko Udalak eta herriko ikastetxeek, *Bizitzarako prestakuntza euskaraz* programaren baitan, lankidetzaz hitzarmenak dituzte abian, eta horien barruan, 2020/2021. ikasturteari dagokion dirulaguntzen zuriak egin berri dute: 1.569.964,71 euro banatu ditu Herri Eskola, Elgoibar BHI Institutua, MEKA, Elgoibar Ikastola eta IMH Makina Erraminta heziketa zentroen artean. EPARI ere diru laguntza eskaera onartu zioten, baina Covid-19aren eraginez ezin izan dituzte ekimenak aurrera eraman. Dirulaguntza hori Udaleko Hezikuntza, Gizarte Ongizate, Euskara, Berdintasun, Sustapen Ekonomiko eta Enplegua eta Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapenerako sailek bideratu dute: Herri Eskola (27.232,25 euro), Elgoibar BHI Institutua (17.992,29 euro), MEKA (4.102,35 euro), Elgoibarko Ikastola (44.164,34 euro), IMH Makina Erraminta (63.473,48 euro).

Murrizketen kontrako manifestazioa egin dute pentsiodunek



Gaurgeroa-Duintasuna elkarteak antolatuta, murrizketen kontrako manifestazioa egin zuten pentsiodunek astelehenean. Besteak beste 1.080 euroko gutxieneko pentsioa, alarguntza pentsioa %100ekoa izatea eta osasungintza publikoa indartzea aldarrikatu zituzten. Horrekin batera, argindarraren prezioa ez igotzeko mezuak ere oihukatu zituzten.

Azken orduko aldaketarik ezean, astelehenean izango da brigadako langileen eta Udalaren arteko epaiketa

Elgoibarko Udaleko brigadako beharginek elkarretaratzea egin zuten urriaren 8an, berain lan baldintzak hobetzeko eskatzeko, eta ELA sindikatutik jakinarazi zuten, brigadako beharginen lan-baldintzak hobetu ezean, urriaren 25ean epaiketa izango dutela. Edizio hau ixterako orduan ez zeukaten Udalaren erantzunik, eta azken orduko aldaketarik ezean, astelehenean epaiketa izango dute. ELA sindikatutik jakinarazi dute duela urtebete inguru hasi zutela egoera hori konpontzeko azken saiakera, baina Udalak ez diela kasurik egin. Gogorarazi dute azken bi urteak bereziak izan direla eta Espainiako Gobernuak etxealdira behartu gintuenean, brigadako beharginak "langile esentzialak" izan zirela, eta baldintza gogorretan ahal zuten lanik onena egiten saiatu zirela, baina Udalaren erantzuna beti berbera izan dela ziturtatu dute: "Gure lanaren inguruan Udalean egin izan ditugun eskaerak erantzun berdina izan dute beti: begiratuko dugu. Baina, noiz? zazpi urte daramatzagu horrela eta nahikoa dela esan dugu. Ekiteko momentua da", azaldu dute langileek udal arduradunekin duten aferaz.

Brigadako langileek adierazi dute ez zutela honaino iritsi nahi, badakitelako epaiketa ez dela egoera hau konpontzeko modurik onena, baina beste erantzunik izan ez dutenez, epaiketara jo behar izan dutela.



Gasteizko hilketa matxista gaitzetsi zuten Elgoibarren eta Mendaron



Elgoibar



Mendaro

Joan zen astean Gasteizen 42 urteko gizonezko batek 27 urteko bere bikotekide hil zuen, eta gero bere buruz beste egin zuen. Gertaera hori gaitzesteko elkarretaratzeak egin zituzten Euskal Herriko herrietan. Elgoibarren eta Mendaron ere batu ziren herritarrek.

Legebiltzarrak aho batez onartu du Debabarrena suspertzea helburu duen ponentzia

Eusko Legebiltzarreko osoko bilkurak aho batez onartu du Debabarreneko eskualdea eta bertan sartzen diren udalerririk suspertzeko ponentzia edo lan taldea eratzea. Legebiltzarreko osokoan izan ziren Elgoibar, Mendaro eta Soraluzeko alkateak: Ane Beitia, Iñaki Arregi eta Iker Aldazabal, hurrenez hurren. Debabarrena eskualdea suspertzeko ponentzia eratzeke proposamena EAJk (Iruñe Berasaluze Mendaroko alkate (2007-2011 izan zenak), EH Bilduk (Ibai Iriarte Tolosako alkate izan zenak) eta PSE-EEk (Miren Gallastegi eibartarrak) aurkeztu zuten Eusko Legebiltzarreko osokoan, eta bertan ordezkariak duten alderdi politiko guztiak onartu zuten, aho batez, aldeko 72 botoekin.

Gripearen kontrako txertoa hartzeko kanpaina hasi da

Aste honetan hasi du Osakidetzak gripearen kontrako txertoa hartzeko kanpaina, eta dagoeneko txanda hartu dezakete arrisku taldeko kideek eta 70 urtetik gorakoek. Aurtengo kanpainaren helburua da pertsona zaurgarrienen osasun indibiduala zaintzea, baina baita osasun kolektiboa zaintzea ere. Hori dela-eta, iaz egin zuten bezala, arrisku-kolektibo batekoak ez diren biztanleek ere hartu ahal izango dute txertoa, betiere txertoak eskuragarri badaude: 65 urtetik gorakoek, patologia kronikoren bat dutenek, haurdun daudenek, osasun-arloko profesionalak, gizarte-zerbitzuetako langileak eta familiako zaintzaileak, zaharren egoitzetan bizi diren pertsonak. Horiek azaroaren 15etik aurrera hartu dezakete txanda. Txanda hartzeko osakidetza.eus webgunea erabili daiteke, edo bestela, Osasun Zentrora deitu behar da.

85 ume izan dira Otxandioko Hontza Extrem parkean, 'Aldenik Alden' egitasmoaren barruan

Aldenik Alden egitasmoaren barruan Otxandioko Hontza Extrem parkean egin zuten irteera joan zen zapatuan, eta guztira 1h4-5-6 mailetako 85 ume eta zortzi hezitzailek hartu zuten parte. Orientazio proba bat egin zuten lehenengo, eta gero, abentura parkean ibiltzeko aukera izan zuten. Antolatzaileek esan dutenez, primerako eguna pasatu zuten.

Bestalde, *Aldenik Aldeneko* ikasturte hasierako ekintza urriaren 9an egin zuten. Elgoibarko Ludotekan pasatu zuten arratsaldea 2012an jaiotako umeek, eta bertaratu zirenek sukaldean jatekoa prestatu eta film bat ikusteko aukera izan zuten.



Elgoibarko Lanbide Heziketako ikastetxeetako ikasleek EuskoSkills olinpiadetan parte hartu dute



EuskoSkills olinpiaden aurtengo edizioa jokatu dute aste honetan Ficoban, eta Elgoibarko Lanbide Heziketako ikastetxeetako hamar ikaslek hartu dute parte. Guztira 19 skills mota ikusi ahal izan dira, eta euskal erkidegoko hainbat ikaslek beraien trebeziak erakutsi dituzte. IMHtik ondorengo ikasleek hartu dute parte: Idoia Royo eta Maialen Gorostidi (Mekatronika), Iker Zubeltzu eta Jokin Andorregi (CNC fresaketa), eta Ander Torquemada (CAD diseinu industrialak). Meka Lanbide Heziketa eskolatik, berriz, hauek: Maddi Escudero eta Naroa Jimenez de los Galanes (Erizaintza), Noemi Torrejon (galdaragintza), Maddi Etxabe (elektromekanika), eta Antton Gisasola (karrozeria).

Azaroaren 25eko ekitaldiak elkarlanean antolatzeko bilera antolatu du Mendaroko Udalak astelehenerako

Azaroaren 25ean Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta, egun horretarako ekitaldiak elkarlanean antolatzeko bilera irekia antolatu du Udalak urriaren 25erako. 19:00etan izango da udalbatza aretoan, eta interesa duen edonork hartu dezake parte.

[Ertzak erdigunean]



Ningra, Nerea Ibarzabal, Idurre Eskisabel, Garazi Arrula, Ibon Manterola, Miren Artetxe, Tarana Karim, Kike Amonarriz, Eneko Gorri, Ibai Iztueta eta 34gradu, 'Euskara ala ezgara ertzetan?' jardunaldian parte hartu zuten hizkuntzalari eta artistak.

'Euskara ala ezgara ertzetan? Euskaldun identitateak XXI. mendean' gaiari heldu zioten zapatuan Gotzon Garate euskaltzalearen omenez antolatutako 'Euskara ala ezgara' ziklora batu ziren hizkuntzalariek. Elgoibarko Izarrak eta Udalak antolatu zuten jardunaldia, IMHren laguntzarekin eta Jaurilaritzaren eta Foru Aldundiaren babesarekin, eta Ningraren rap-kontzertuarekin eman zioten azkena. Han entzundakoen laburpen bat jaso dugu hemen. Kronika hauek zein emanaldi guztien bideoak aurki zintzilikatuko ditugu 'barren.eus' eta 'euskalaezkara.eus' atarietan.



Ningrak eta 34graduk IMHko pergolan eman zuten kontzertuko irudia.




[Datuek adierazten ez dutena, azalera]

Hizkuntza komunitatearen argazki orokor bat eginez hasi zuen Ibon Manterola hizkuntzalariak bere tarte zapatuan. Inkesta soziolinguistikoko datuak eta mapa soziolinguistikoak aletu zituen, euskararen ezagutza eta erabileraren bilakaera errepasatu zuen, bai eta euskara sustatzeko aldeko jarrera dutenen kopuruak ere, eta hiru ondorio nagusi nabarmendu zituen: euskarak gero eta hitzun potentzial gehiago dituela; hau da, euskara dakitela esaten duen gero eta jende gehiago dagoela; euskararen ezagutzan gora egin arren, erabilera datuak apalak direla: “Edo hobekuntza txiki-txikiak izan dira, edota atzera egin da bestela”; eta euskara sustatzeko jarrera dutela diotenen masa handi bat dagoela Euskal Herrian, lurralde bakoitzean politika instituzionala eta euskararen estatus soziala ezberdinak izanda ere. Jarreraren inguruan, bi ikerketa aipatu zituen, datu kualitatiboagoak ematen dituztenak. Bate-tik, Jaurlaritzak aginduta, Iñaki Martínez de Lunak zuzendutako *Euskararen Gaineko Oinarritzko Diskurtsoa*. Haren arabera, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaian herritarren %97k euskara begirunez tratatu behar dela diote eta gehiengo euskararen aldeko politikak sustatzearen alde dago: %82. Euskararen alde “derrigortasun puntu bat aplikatzearen eta baliabide publikoak inbertitzearen alde” daudenak, gainera, gehiengo nabarmena dira: %61. Jarrera mesfidatian daudenak, berriz, gehienez %20 dira. Bestetik, Xabier Erize soziolinguistaren ikerketa etnografiko bat ere aipatu zuen, zeinean Erizek defendatzen duen “Nafarroan, foku mediatiko gatazkatsutik eta alderdi politikoen jokatik kanpo badagoela lurra aurrerapausoak egiteko euskararen sustapenean, babesa, borondatea eta sustapena landuta”.

Inkesta eta grafikoetan ageri diren zenbaki, kontaketa eta porzentaje guzti horiek euskararen biziberritze prozesuaren ezinbesteko elementuak direla nabarmendu zuen, ematen dutelako babes bat eta oinarri zientifiko bat biziberritze prozesuez hitz egiteko, eztabaidatzeko eta hartzen diren neurriak auzitan jartzeko edo defendatzeko, baina aldi berean, esan zuen askotan adierazten ez dutena pentsaraztera eramaten gaituztela grafikoek, abstrakzioarako dugun joeragatik alde batera lagatzen ditugulako hitzunen artean dauden ezberdintasunak eta idealizatzen dugulako hizkuntza komunitatea homogeneoa dela: “Eztabaida ez da neurtu behar den edo ez kuantitatiboki. Beste kontu bat da, beharbada, denboraren poderioz komunitatearen irudikapen kolektibo batzuk eraiki ditugula eta hitzun perfilak homogenizatzen jo dugula, eta beharbada er-

Ibon Manterola



[Hizkuntza komunitatearen ikuspegi homogeneoegia irudika dezaketen hitzun profilak berrikusten jarraitu behar da]

digune batzuk eraiki ditugula eta hortik kanpo daudenak ertzetara bidali ditugula”. Eta uste hori arrazoitzeko, hainbat adibide eman zituen. Aipatu zuen, esaterako, Paula Kasares filologo eta antropologoaren ikerketa bat. Baztango eta Iruñerriko gurasoek haurrak euskaraz hazteko nola egiten zuten aztertu zuen Kasaresek, baina horretarako ez zituen euskaraz zekiten gurasoak bakarrik hartu, posible delako haurrak euskaldun haztea haurrei gaztelaniaz eginda. Aipatu zuen, era berean, Ainhoa Pardina hizkuntzalariaren beste lan bat, erakusteko zein gutxi dakigun hitzunez (*Euskararen belau-naldiz belau-naldiko etena eta jarraipena Lizarrako ikastolako fami-lien testuinguruan*). Eta aipatu zuen euskararen ezagutzak erabilera ekarriko zuen ustea, “konfirmatzen duena irudikapen kolektibo batzuk eraikitzen ditugula hitzun perfilen inguruan”.

Horregatik guztiagatik, hizkuntza komunitatearen ikuspegi homogeneoegia irudika dezaketen hitzun profilak berrikusten jarraitu beharra dagoela azpimarratu zuen, hitzun profil batzuk erdigunean kokatzeak eta beste batzuk ertzetara bidaltzeak komunitatearen irudikapen murriztua sortzen duelako: “Askotariko hitzun profilak zenbat eta sakonago identifikatu eta sendoago zilegiztatu, orduan eta iraunkorragoa izango delako hizkuntza komunitate ertzez josia”, azpimarratu zuen.

Miren Artetxe



[Euskal hiztun berrien legitimaziorako gakoak]

Gaur egun, Euskal Herriko gazte euskaldunen erdiak baino gehiagok etxetik kanpo ikasi du euskara. Hiztun berriak dira, eta haien kopurua gero eta handiagoa da, bai modu absolutuan zein erlatiboan. Gero eta jende gehiagok daki euskaraz beraz, baina erabilera ez da maila berean hazten ari; are, behera egin du Euskal Herriko eremu askotan. Eta arrazoiak askotarikoak dira argi du Miren Artetxe bertsolari eta ikerlariak, baina uste du hiztun berrien hizkuntza ibilbideek zenbait gako eman diezazkiguketela erabilera handitzeko, eta horregatik, ezinbestekoa ikusten du haiek aztertzea, ez bakarrik justizia sozialaren ikuspuntutik (hiztun berriak gero eta gehiago direlako), baizik eta baita euskararen eta bertsolaritzaren bideragarritasunaren ikuspuntutik ere. Eta horixe egin zuen zapatuan, *Bertsolaritzatik hiztun berrietara; hiztun berrietatik hizkuntza ideologietara* izenburuko hitzaldian.

Hasteko azpimarratu zuen azken urteotako ikerketa askotan esan dutena: euskara etxean ikasi ez izanak garrantzia izan dezakeela hiztunen hizkuntza portaeran, baina ez dela "autoprofezia autobete bat". Ez da 'ez dute etxean ikasi, ez da haien hizkuntza, eta beraz, ez dute erabiltzen'. Ez da hain sinplea, etxean ikasi ez duten askok egiten dutelako euskaraz, eta etxean ikasi duten askok ez dutelako erabiltzen. "Bizitza beste arrazoi daude horretarako". Artetxek dio hiztun berrien hizkuntza erabilera lotua dagoela, nolabait, hiztun gisa nork bere burua legitimo sentitzearekin edo eta besteengandik hiztun legitimo gisa hartua izatearekin. "Ez baita gauza bera norberak sentitzen duena eta besteek norbera nola ikusten duten". Garbi du berak: legitimo sentitzea gakoa da hiztun berriak aktibatzeke, hiztun legitimo sentitzen dena errazago ariko delako hizkuntza horretan. Baina, era berean, legitimazio prozesua ulertzea behar-beharrezkoa ikusten du euskara biziberritzeko.

Tesirako egin zuen ariketa (*Hiztun berriak eta bertsomundua. Legitimatu a(ha)la auzitan jarri?*. EHU, 2018). Bost urteko ibilbidean, Ipar Euskal Herriko bertsomunduan zebiltzan gazteen hizkuntza ibilbideak, portaerak eta identitateak aztertu zituen. 15-20 urte bitarteko gazteak elkarrizketatu zituen, tartean bi hiztun berri, euskara etxean jaso ez zuten bi alegia. Eta kontatu zuen nola bi bertsolari horiek esaten zuten bertsolaritzan jarduteagatik hiztun gisa legitimatuta sentitzen zirela bertsomundutik kanpo, baina ez bertsomunduan, ez hiztun zaharren mundua den bertsomunduan. "Zu hiztun berria zara, baina bertsolaria", esaten zieten bertsomundutik kanpora". Bertsomunduan sozializatzeko ematen zuten autoritatea. "Bertsolariak badaki eta bertsotan ari ez denak ere bai eguneroko bizian hizkuntza erabiltzeko eskatzen duen hizkuntza ezagutzatik haratagokoa behar duela bertsotan ari denak. Eta horregatik, bertsolaria euskara ongi menperatzen duen hiztun gisa irakurria da". Hori, kontu objektiboa da, baina ez da hori bakarrik, Artetxeren esanetan. Bertsolariari egotzi egiten zaio gaitasun hori, bai eta erabilera bera ere. "Bertsotan ari denari euskararen erabilera konsistentea, trinkoa eta koherentea egotzen zaio. Gure iruditerian ez da kabitzen oholztatik jaitsi eta kuadrillakoekin gazteleraz edo frantsesez aritzea bertsolaria, nahiz fisiologikoki posible den. Bertsolariari suposatzen zaio hori dena, eta baita euskara etxean ikasia duela ere".

Artetxek elkarrizketatutako hiztun berriek, baina, aitortu zuten bertsomunduan "salbuespen" sentitzen direla, eta euren hiztun berri kategoriaz ere, bertsomunduan konturatu zirela. "Diskurtsoa da edonork ikas dezakeela euskara, edonork ikas dezakeela bertsotan, baina hiztun berri bat izan daiteke euskara etxean jaso duen bat bezain ona bertsotan? Izan daiteke berezko hiztun bat bezain ona? Aitortzen diogu legitimitate hori?". Bertsolaritza nagusiki gizonen gizonentzako

garatutako praktika soziala eta kulturala izan den bezala, euskaldun zaharrek euskaldun zaharrentzako garatua ere izan dela uste du Artetxek, eta neurri batean, oraindik ere hala dela, eta horregatik, euskara etxean ikasi ez izana eta bertsolariaren irudi kanoniko hori traba zaiela hiztun berriei bertsotan. Eta berdin gertatzen da bertso-mundutik kanpo ere: “Hizkuntza gutxituetako hiztun berriek benetako hiztunak ez izatearen sentipena izan ohi dute”.

BERTSOLARITZATIK HIZKUNTZA IDEOLOGIETARA

Hizkuntza ideologia baten arabera eman edo ukatzen zaio hiztunari legitimitatea, eta ideologiak asko izan arren, bi nabarmendu zituen Artetxek: Benekotasunaren ideologia (benekotasun eta berezkotasun kontzeptuei lotutakoa) eta anonimotasunarena (neutrotasunarekin edo inorena ez izatearekin lotutakoa). “Hizkuntza gutxituetan, askotan, benetakotasunaren ideologiatik ematen zaio legitimitasuna hiztun bati, baina hiztun horrek komunitate edo talde jakin bati lotua egon behar du. Hiztun horren euskara zenbat eta puruago izan, hobeto; euskalkia hitz egiten badu, hobeto, eta ondarrutarra edo zuberoharra bada, askoz hobeto. Hori da benetako hiztuna, beste kulturekin kutsatua izan ez dena”. Eta gaur horrela pentsatzeari ez dio kasualitatea irizten Artetxek. Azaldu zuen hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuak nazionalismoaren sorreraren garaian egituratu zirela, hizkuntza nagusiak inposatu ziren garaian. “Unifikaziorako hizkuntza bakarra izatea tresna garrantzitsua zen, eta hori ezartzeko ondorengo argumentuak erabili zituzten: sintaxi perfektudun hizkuntzak zirela, funtzionalak zirela eta efizientekoak”. Diskurtso horren kontra ideia erromantikokoak hartu zituzten hizkuntza gutxituen aldeko mugimenduek, “folklorizanteak”: “Esaten zuten hizkuntza gutxituek balioa dutela, hain zuzen ere, primitiboak direlako, kutsatu gabeak direlako, bertakoak direlako, esentzialak direlako. Eta hortik dator gaur egun daukagun ideologia, hortik dator euskaldun onaren irudia”.

Aldiz, dio, hizkuntza nagusietan pentsatzen jarritz gero, inori ez letorkiokela burura euskaldun onaren irudi horren parekorik. “Ez litzaziguke baseritarrik agertuko. Etorriko litzaziguke burura norbait irakurria, dirkurto jaso duena eta ez dagoena komunitate bati edo beste bati lotua. Izan ere, estandarrak ez dauka karga ideologikorik, eta neutroa da, noranahikoa”. Baina azpimarratu zuen hizkuntza estandarrak botere instituzional, politiko eta ekonomiko handia dagoen eremu geografikotik gertu dauden aldaerak izan ohi direla, eta horregatik, euskararen kasuan, hiztuna benekotasunaren ideologiatik legitimatzeak baduela bere arriskua: “Euskalkia dutenen kasuan, dialektoak ematen die legitimazioa, baina euskara batua darabiltenek ez dute hain erraz gainditzen autentikotasunaren filtroa. Gasteiztar asko daude lehen hizkuntza euskara dutenak, baina euskara batua, eta horiei zera esaten diete askok: ‘Zein ondo hitz egiten duzun euskaraz arabarra izateko!’. Baina bestera, Berritxun bizi den senegaldar baten semeak zer kariño sortzen digun euskaraz entzuten dugularik!”. Filtro afektiboak ez da bera, eta beraz, benekotasunaren ideologiari arriskutsua irizten dio, hiztun zaharren eta berrien artean hierarkia bat sortzen delako

[Identitate hibridoak, gaur hain gaizki ikusiak daudenak, errealitate bat dira eta jostagarriagoak dira]

eta hori ez delako estrategikoa hiztun berriak gehiago direnean.

Anonimotasunaren ideologiak ere badu bere zera. Euskarak badu bere estandarra, euskara batua, eraikia dena eta berez hiztun talde jakin batekin zuzenean identifikagarria ez den aldaera, baina hala ere, hiztun onari buruz galdetuta, oraindik ere gure buruetan “Olenzeroren irudia” agertzen dela gogorarazi zuen Artetxek. “Gertatzen dena da estandar horren ideologia nagusitzen dela batez ere idealizatutako ahozko hizkera abstraktu eta aldagaitzaren ideiak funtzionatzen duen bitartean eta botere eta instituzioek hori indartzen duten bitartean, eta hemen ez dela halakorik gertatzen. Hemen, botereak ez du euskara batuan hitz egiten; hemen, botereak ez du euskaraz hitz egiten”. Benekotasunaren ideologiak, beraz, “kale itsu batera” garamatza “bai ala bai” Artetxeren esanetan, baina anonimotasunaren ideologiak ere bai, “egungo baldintzetan ezin dugulako hizkuntza handiekin lehiatu”.

Horregatik guztiagatik beharrezkoa ikusten du modernitateko ideologietara sustraitutako konplexu ideologikoak zalantzan jartzeari. Posmodernitatearekin batera bestelako identitate batzuk sortzen ari direla nabarmendu zuen, bai eta hizkuntzarekiko lotura ulertzeko modu ezberdinak ere, orain hogeitun urte ez geneuzkanak. Hortxe du esperantza jarria. “Egiten duguna egiten dugula gure ideologiaz kontziente izan behar dugu. Identitate hibrido horiek, gaur egun hain gaizki ikusiak dauden identitate likido horiek, errealitate bat dira eta jostagarriagoak dira. Guk ezin diegu eskatu haiei gure ideologiaren arabera kokatzeko; guri dagokigu kokatzea identitate horien arabera”. Eta horretarako, garrantzitsua ikusten du jabetzea erdigune asko eta ertz asko daudela, bai eta lehenbailehen hastea oinarri diskurtsibo berrien bila ere.





Kike Amonarriz, Ibai Iztueta, Tarana Karim eta Eneko Gorri, zapatuan, 'Zer da euskaldun izatea? Identitateraen gaineko gogoeta' izenburuko mahai-inguruan.

[Euskaldun izateaz gogoetan]

Zer da euskaldun izatea?. Simplea zirudien galdera egin zien Kike Amonarriz filologo eta Topaguneko presidenteak solaskideei, eta hiru minutuan, hiru "definizio" jaso zituen. "Euskalduna ez da euskaraz dakiena soilik, baizik eta Euskal Herriko eremuan euskaraz dakien norbait aurkitzen duenean hari euskaraz egiteko hautua egiten duena. Mandatu bat darama euskaldun izateak, euskara jakiteaz batera", esan zuen Ibai Iztuetak, kognizio zientzien eta giza zientzien adarrearantz doktoareak, euskalduna termino deskriptiboa baino gehiago preskriptiboa dela nabarmenduta. Etnia eta sentimendu jakin bati lotuagoa ikusten du Tarana Karim abokatu, itzultzaile eta aktibistak euskaldun terminoa, eta garbi du: "Ni hemengoa naiz, baina ez naiz euskalduna, Azerbaijangoa naizelako". Zazpi hizkuntza hitz egiten ditu Karimek, baina bakarria sentitzen du berea: "etxekoa". Eneko Gorri Miarritzeko Euskara teknikariak, beriz, XXI. mendean euskaldun izatea izokina izatea zela erantzun zuen, "korrontearen kontra egitera behartua dagoen izokina".

Ikuskera ezberdinak izanda ere, euskaldun izaten jarraitzeko zer behar dugun galderak hurbildu zituen aparte ziruditenak. Euskararentzat lurraldetasuna eta nazio dimentsioa proiektatzea behar-beharrezko ikusten du Gorrik, "gaur, Parisera begira gaudelako gero eta gehiago Ipar Euskal Herrikoak, eta Madrilera begira Hegoaldekoak. Sare bat sortu behar dugu, euskaratik". Eta horri lotuta, euskaldun kontzientzia indartzeko beharra ikusten du. "Inportantea da oroitzera zer garen eta oroitzera kondenatuta gaudela korrontearen kontra egitera. Gauza politak ere ekartzen dizkigu horrek, gainera: batzen gaitu, komunitate egiten gaitu, eta baloratu behar ditugu gauza polit horiek".

Iztuetak ere ezinbesteko ikusten du euskararentzat nazio dimen-

tsioa proiektatzea, hori egin ezean beste hizkuntza batek hartuko duelako euskararen lekua. Eta ikusten hasia da hori. Euskaldun terminoa vasco hitzaren ordain hutsa bihurtzen ari dela esan baitzuen, batez ere gazteen artean, eta horrek erakusten duela euskal subjektu baten urtzea eta desagertzea: "Ez badago subjekturik, ez dago talde sozialik eta ez dago hizkuntzaren praktikarik". Vascoaren baitan bi talde guztiz diferente daudela nabarmendu zuen horren harira. Batetik, dago vasco *erresistentea*, zubi-lana egiten duena, "bizialdi batean berriro ere euskalduntasunerako bidea egingo duena". Eta bestetik, dago vasco *asimilatua*, "bere horretan eroso dagoena eta ez daukana euskaraz bizitzera aldatzeko inolako asmorik, ez beretzat eta ezta bere ondorengoentzat ere". Eta vasco-en artean bezala, erdaldunen artean ere bi talde bereizten ditu Iztuetak, euskaraz badakitenak eta ez dakitenak, eta uste du lehenengoekin lan handia dagoela egiteko, euskal nortasuna sustatzen. Juan Carlos Etxegoien Juanarena *Xamar-en* berbak bere eginda esan zuen, ezinbestekoa dela hizkuntza historia batekin, giza-talde batekin, lotzea. "Euskaraz ez dakitenen artean identitate vasco erresistente bat lantzen jarraitzea tokatzen da. Ez da nahikoa, baina bai ezinbestekoa".

Euskaraz hitz egiteko bi arrazoi ikusten ditu Iztuetak: euskalduna izatea eta beste euskaldunekiko errespetuzko tratua izatea. Baina aukeren abanikoa zabalagoa dela uste du Karimek. "Ez nago ados horrekin. Gizarte honetan bizi naizelako ikasi dut euskara; ama naizelako eta behar dudalako eskolako gaiekin laguntzeko seme-alabei, gizartean ere parte hartu nahi dudalako... Tresna inportantea da euskara hemen bizitzeko". Tolosan bizitzea eta Gasteizen bizitzea ezberdina dela azpimarratuta, aurrez esandako bi aukerak barnebiltzeko arrazoiak

iruditu zitzaizkion Iztuetari Karimenak.

Euskaldun izateari bestelako konnotazioak ere ikusten dizkio Karimek, hala ere, eta haiez gabetu gabe, hizkuntzak nekez biziraungo duela uste du. "Euskaldunari eusko-labela kendu behar zaio, bestela gizarteko parte handi bat kanpoan geldituko da eta ez dute euskara berena sentituko". Bere sorterriko errealitatearekin alderatuta, aitortu zuen Euskal Herrian bigarren hizkuntza ofizial bat izateak zailtzen duela euskarara gerturatzea, baina hain justu horregatik euskara ikastea "errazago" jarri behar dela nabarmendu zuen. "Doakotasunaren alde egin behar da". Eta bigarren kontu baten beharra ere sumatzen du, aurrekoari lotuta. "Azeriarra naizelako ez naiz euskalduna sentitzen, baina euskal herritarra naiz, gainerakoen betebeharrak eta eskubideekin, eta gizarteak ez nau horrela pertzibitzen. Gidabaimena atera berritan ematen duten 'L'-a bizitza osoan erabiliko dut. Beti izango naiz kanpo-koa". Garbi du "euskara bada Euskal Herriko hizkuntza", D ere du indartu behar dela, baina ikusten du hutsunerik Hezkuntzan. "Ezin diogu kanpotik datorrenari esan 'utzi zure kultura etxean', eta gure seme-alabekin hori egiten da eskolan. Gure seme-alabek gizarte honi egiten dioten ekarpena ez da aintzat hartzen; ez da gure jaiez hitz egiten, adibidez, eta horregatik gure seme-alabek inposiziotzat ulertu dute askotan euskara, adibidez patioan erdaraz egiten utzi ez dietenean".

EUSKARA NORMALIZATZEKO ADIBIDEAK

Hizkuntza hegemoniko bat dagoen lekuan hizkuntza minorizatu bat normalizatu nahia ez da erraza. Arazo handiena garbi du Iztuetak zein den: "Erdaldun elebakarrak asko izatea. Dena baldintzatzen du horrek. Erdaldun elebakartasunik ez balego, beste joko zelai bat izango genuke". Baikorrage jardun zen Eneko Gorri, herritarren %50ek frantses jatorria duten eremu geografikotik etorrita ere (Angelu, Lapurdi). "Dena dago egiteko eta hori magikoa da euskalgintzan militatu nahi duenarentzat". Ipar Euskal Herrian, 3.000 metro koadroko lur eremuan, 300.000 biztanle bizi dira eta urtero 3.000 lagun berri iristen dira bizitzera. Biztanleriaren %49 ez da Euskal Herrian sortua eta kanpotik iristen direnen %94 estatu frantsesetik iristen dira, "gu baino diru gehiagorekin". Bestera pentsa badaiteke ere, Gorrik zehaztu zuen urtero iristen diren horiek ez direla erretiroa hartutakoak, baizik eta familia osatu duten gurasoak, eskolan sail elebakarrean ibili diren 8-10 bat urteko haurrak dituztenak. Eta hor zuzendu beharreko lehenengo kontua. "Ipar Euskal Herrian ez da esistitzen haurrentzako hizkuntza eskolarik. 3 urtetan ez bazara euskaraz eskolatua izan, 18 urtera arte ezin duzu euskaraz ikasi, eta eskolan ez da esistitzen zubi-lana egingo duen sistemarik". Heldu diren haurrentzat "euskalduntze kanal berriak" sortu beharra ikusten du, eta horrekin batera, baita euskalduntze masiborako kanalak ere. "Euskara ikasten duten %95ek AEKn ikasten dute, baina 1.200 jende dira urtero. Doakotasuna eta unibertsalizazioa behar dira", dio. Hala ere, nabarmendu zuen indar guztiak ez direla bideratu behar kanpotik

Ibai Iztueta



[Nazio dimentsioa proiektatzea behar dugu. Ez da aski nazio kontzientzia izatea, baina ezinbestekoa da]

Eneko Gorri



[Euskalduntze bideak zabaldu ondoren, euskal komunitatea trinkotzeko bideak zabaldu behar dira]

Tarama Karim



[Azeriarra naizelako ez naiz euskalduna, baina euskal herritarra naiz eta gizarteak ez nau horrela pertzibitzen]

iristen direnak euskarara erakartzera, eta "euskalduntze bideak zabaldu eta demokratizatu ondoren", euskal hiztun komunitatea indartzeko mekanismoak jarri behar direla martxan. "Askotan, inertziak edo gure lotsaz, gauza trakets batzuk egiten ditugu. Uste dugu euskararen alde egiteko, erakutsi behar dugula euskara modernoa dela, eta beraz, euskaraz egin behar dugula surfa, graffitiak... Eta Miarritzen, diziplina aktualek egin ditzakegu euskaraz gaur, baina gero, baditugu hiru pilota eskola eta bakar batean ez da egiten euskaraz, eta baditugu hiru dantza talde eta bakar batean ezin da ikasi euskal dantza".



Idurre Eskisabel, Ningra, Nerea Ibarzabal eta Garazi Arrula, zapatuan, IMHn, 'Euskalduntasun onak eta txarrak: naturaltasuna auzitan' izenburuko mahai-inguruan.

[Naturaltasuna auzitan]

Beren adierazpidea eta izatea hitzarekin oso lotua duten hiru emakume batu zituen Idurre Eskisabel kazetari, idazle eta antropologoak *Euskalduntasun onak eta txarrak: naturaltasuna auzitan* mahai-ingururako: Uxue Iturrate Ningra abeslaria, Garazi Arrula itzultzaile, idazle eta editorea, eta Nerea Ibarzabal idazle, bertsolari eta kazetaria. Euskalgintzaren diskurtsoan ertzetakoak dira bi, Iturrate eta Arrula, Bitorianokoa bata (Araba) eta Tafallakoa bestea (Nafarroa); euskara eskolan jaso eta euskararen mundura gazte mugimenduetan militatuzetik hurbildu dena da lehenengoa; eta euskara etxean jaso duena bigarrena. Ibarzabal, berriz, markinarra da, eremu gorrikoa, herritarren %80 euskaldunak diren herrikoa; erdigunekoa beraz. Diskurtso nagusiaren arabera hori, praktikan lausoagoak direlako ertzak, bai eta erdigunea(k) ere.

Autobiografia linguistikoa egiteaz batera argi laga zuten hori Arrulak eta Ibarzabalek. Arrulak esan zuen Tafallatik Iruñera ikastera joan zenean sentitu zela bera ertzeko; beren burua erdigunegokotzat zutenekin harremanetan bihurtu zela bera periferiko, eta handitu zela sentsazio hori gero Donostiara ikastera joan zenean. Ibarzabal, berriz, etxetik da euskalduna, baina argi du premisa ez dela asko aldatzen Markinatik Gasteizera eta hizkuntza ez hegemoniko baten biziraupena ezin dela ahalbidetu hiztun kontzientziarik ez duten hiztunekin. Familian topatu ditu arrazoiak. Ibarzabalen gurasoek arnasguneetako belaunaldi bi errepresentatzen dituzte. Ama aias-

tiarra da (Elgoibar), baserrikoa, etxetik euskalduna, baina herri industrializatuago batera joan zirenean bizitzera, Zumarragara, gaztelera agertu zen euren bizitzan eta gaur, %90 erdaraz egiten dute neba-arrebek euren artean. Aita ere baserrikoa du, baina haren aldekoak Markinan gelditu ziren, landa eremuan, salbu bi anaia Ameriketara joan zitzaizkiela. "Osabek batek ez dio transmititu euskararik semeari eta lehengusu horrekin ingelesez hitz egiten du". Horregatik, euskaldun kontzientzia hartzea ezinbestekoa ikusten du Ibarzabalek hizkuntzaren bizirauterako, baina intuizioak diotso arnasguneetan zailagoa dela kontzientzia horretara iristea. "Erabileraren mantak lasaitzen gaitu, baina inguru sozial egoki edo onerako hori aldatu daiteke". Beraz, beste bi solaskideekiko "pribilegiaduna" sentitzen dela esan zuen, eremu sozial erosoago batean garatu ahal izan duelako bere hiztun izaera eta bere izaera bera, baina jakinda, beti ere, hizkuntza hegemoniko bateko pribilegiaduna izatea "itsuen erreinuan begibakarra izatea dela". Hiztun kontzientzia horretara bertsolari izanda iritsi dela aitortu zuen berak, eta esan zuen ez balitz bertsolaritzan sartu gaur oso bestelako diskurtsoa izango zuela beharbada, nahiz eta Markinan egunero euskaraz egin.

Diskurtso hegemonikoan, baina, sarri arnasguneetako euskal hiztunak dira euskaldun jatorrak. "Gizon zuria, adinez nagusia, gipuzkoarra, sagardozalea...", datorkio burura Iturrateri. "Hau bai euskaldun jatorra eta hau bai bertsolaria entzunda gizon bera datorkit burura", gehitu zuen Ibarzabalek. Euskal-

dunaren imajinarioa aldatu beharra ikusten dute hirurek, euskara biziberrituko bada. Baina Arrulak sumatzen ditu erresistentziak oraindik. "Badago bertan goxo bat berezitasunean eta txikitasunean, eta horrek ez du eskatzen bestelako ardurarik hartzea eta urratsik egitea. Oso beharrezkoa da hori aldatzea". Nolanahi ere, euskalduntasuna ona eta txarra terminoetan ebasteak, mina egiten diela aitortu zuten eta traba ere izan zaiela behin baino gehiagotan. "Molestagarria zitzaidan, batez ere umetan. Sekulako identitate krisia izan nuen. Hazi bazara kultura batean, baina ezaugarri fisiko ezberdinak badituzu, beti ari zara besteen onarpenaren bila. Umetan, euskalduntasun eredu hori jarraitu nuen eta hasi nintzen arropa jakin bat janzten, orrazkera jakin bat eramaten. Erreferente gehiago eta askotarikoak behar ditugu", esan zuen Iturratek.

ESTANDARRA VS EUSKALKIA

Bereziki gazteen artean zabaldu den euskalkian egiteko joeraz galdetu zien Idurre Eskisabelek hiru mahaikideei, eta euskalkirik ez izateak, edo estandarrean marka hori ez eramateak, sentiarazi ote zituen noizbait Arrula eta Iturrate ez hain euskaldun. Biek sentiitu dute. "Askotan", Iturratek, eta amorrarazten du horrek. Eztabaida antzuarri ihes egin zion Arrulak. "Ez genuke zubi batez sekula esango euskara batuaz esaten duguna: eraikia da, eta beraz, faltsua da. Zozokeria galanta da hori, eta gaituta izan beharko genuke". Eta erdigunekoari luzatu zion galdera gero: "Zuk sumatzen duzu zure inguruetako bat den horretan autentifikazio horren beharra edo zergatik bilatu ote dezaketen zure belaunaldikoek hori?". Hitzun kontzientziarekin lotu zuen Ibarzabalek. Haren esanetan, hitzun kontzientzia falta hori bera manifestatzen da erregistro estandarra ez onartzean eta errespetatzean, bai eta norbere hizkuntza ez menperatzean ere. Kontzientzia falta hori euskalkidun herri askotan igarri-igarrikoa dela nabarmendu zuen. DBH 4 ikasten ari zen garaira egin zuen salto, irakasleak EGAKo azterketako emaitzak eman zizkien egunera. Gaituta ez zuten mina ekarri zuen akordura. "Baina, orduan zer dakit bal!" botatu zuen batek. Baserriko semea zen, ezer gaituta ez zuena, baina euskara berea zuen eta sekulako mina eman zion ez gaitutzeak". Bere ustetan, gakoa hori nola kudeatzen den da. "EGAKoa ez da euskara esango dute askok, eta aitortuko dut euskalkidun asko egon garela uste horretan noizbait, eta batzuek, zoritxarrez, segitzen dutela. Konturatzen gara oker gaudela euskalkidun espanyolisten ahotan diskurtso bera entzuten dugunean".

Euskaldun zaharren artean "frustrazio halako bat" sumatzen du Ibarzabalek, batez ere eurek erabili dituzten hainbat esamolde oso eremu murriztean erabili ditzateketela konturatzen direnean; "beren lur hori pixkana galtzen doala ikusten dutenean". "Hitzun kontzientzia da gakoa", uste du, eta hori lortzeko garrantzitsua irizten dio kultur zaletasuna edo kulturarako sarbide erraz bat izateari. Gaur, baina, ez du argi ikusten hori

Garazi Arrula



[Ez genuke zubi batez sekula esango euskara batuaz esaten duguna: eraikia da, eta beraz, faltsua da]

Nerea Ibarzabal



[Hizkuntza ez hegemoniko baten biziraupena ezin da ahalbidetu hitzun kontzientziarik ez duten hitzunekin]

Ningra



[Hazi bazara kultura batean, baina ezaugarri fisiko ezberdinak badituzu, beti ari zara besteen onarpenaren bila]

badagoenik. "Nik euskaraz hitz egiten oso gustura entzuten ditudan andra-gizon asko eta esamolde zoragarriak darabiltzatenak ez daude gaur hemen, euskararen inguruko eztabaidan, eta ez daude beste eztabaida batzuetan ere. Badago tradizioari lotutako bizimodu bat min egiten didana".

Euskalkiaren aldeko jarrera bezain sendo dabil euskalaren aldeko aldarrikapena, eta horri, hibridazioari, "frantsesentzat eta espainiarrentzat ere kezagarria den hibridazio horri eta Chill Mafia bezalakoek horren sendo eusten diotenari", gurea bezalako hizkuntza gutxitu batek nola eusten zion gal-

detu zien Eskisabelek. Ertz asko atera zizkieten. Inguruan gaztelera entzuten zuenak euskara hutsean egitea "utopikoa" zela esan zuten lurratek eta utzi beharko genioke "euskarari hainbeste pisu" jartzeari. Bat etorri ziren Arrula eta Ibartzabal, "baina partez bakarrik". Chill Mafiarenari diskurtso sendoa baino gehiago "kategorikoa" iritzi zion Arrulak. "Eurek ere esaten zuten besteak eman diegula boterea, egiaz haiek gaur esan dezaketelako A, eta bihar, B". Beste adibide batekin ilustratu zuten bere diskurtsoa: Tuterako Nafarroa Oinezen EHEK zabaldu zuten pankarta bati egin zion aipamena. *Erdara barra-barra, euskaldun kaskarra* zioen, mezu desafortunatu oso Tuterarako, iruditzen baitzait diskurtso horrek ez diola erantzuten tokiko egoeraren azterketa bati, diskurtso esentzialista morala delako eta erantzuten diolako bakarrik norbanakoaren alderdiari. Beharrei eta tokiko egoerari begiratu behar zaiolako". Arrazoa eman zion Ibartzabalek. Haren esanetan, leku askotan hibridazioa da euskara sortzeko modu bakarra, eta zentzu horretan "poza eta miresmena" sentitzen ditu hautu hori egiten dutenekiko, baina bestetik, kontziente da hibridazio horretan galtzeko guztiak euskarak dauzkala. Dialekto kanariarrean idatzita dagoen *Panza de burro* liburua bezalako bat euskaraz idatziko ote lukeen galderari erantzun zion Ibartzabalek, behi-



nola Uxue Alberdik egindako galderari. "Ez dut uste egin behar dugunik, arauaren kontra atentatzen ibiliko ginatkeelako araua ez dagoenean behar beste onartuta eta oraindik pedantzetat dugunean erregistro batua. Ezin gaitzke egon hibridazio horren alde eta gero esan ez dugula ulertzen Miren Amurizaren *Basa*".

Zikintzeko prest izan behar dugula nabarmendu zuten guztiek, eta izan behar dugula, era berean, "malguagoak" sortzaileekin eta hiztunekin. "Eta izan behar dugu gogorragoak politikekin", gehitu zuten Ibartzabalek. Andu Lertxundiren *Itzuliz usu begiak* saiakerako adibide bati heldu zion: "'Trenak orain burutuko du bere irteera'. Halakoei ez diegu beldurrik, baina gero eskandalizatzen gaitu Chill Mafiak".

25 urte

pertsonen arteko zubiak eraikitzen



BILBOAN, DONOSTIAN, VITORIA-GASTEIZEN ETA TOLOSAN

www.euskadi.eus/familia-bitartekaritza



Euskadi, auzolana

EUSKO SAHULARITZA

GOBIERNO VASCO

ERREPUBLIKANAREN ERREKORATZEA

ERREPUBLIKANAREN ERREKORATZEA

Arimen Gauaren harira, hainbat ekitaldi antolatu dituzte datorren asterako Elgoibarren eta Mendaron

Azaroaren 1ean ospatzen da Domu Santu eguna, eta aurreko gaua izaten da arimen gaua. Gaur egun nazioarteko Halloween festarekin lotzen da ospakizun hau, baina arimen gauak tradizio luzea du Euskal Herrian ere. 1950eko hamarkadara arte, gutxienez, gure herri eta eskualde gehienetan bizirik iraun zuen ohitura izan zen, eta ohikoa zen, esaterako, kalabazak edo arbiak hustu eta aurpegi itxura ematea. Barruan kandela txiki bat sartu eta bide bazterretan jartzen ziren argizatuta, bizilagunak beldurtu eta hildakoen arimegi bidea erakusteko. Horrelako tradizioak berreskuratu nahi dituzte Elgoibarren eta Mendaron, eta horretarako elkartu dira hainbat eragile. Elgoibarren, Atxutxiamaiak, Ludoteka, Gaztelekua, Liburutegia, Haritz dantza taldea eta Musika Eskola aritu dira ekitaldiak antolatzen Udalarekin elkarlanean, eta Mendaron, berriz, Udal Ludotekak eta Gaztelekuk eta Arno Guraso Elkarteak antolatu dituzte ekintzak.



Elgoibarren



URRIAK 26

- 16:30 Kalabaza eta mozorro tailerra Ludotekan, LH 1,2 eta 3. mailako haurrentzako. Izena eman behar da www.elgoibarkoizarra.eus webgunean.

URRIAK 28

- 18:00 Mirian Mendoza ipuin kontalariaren saioa. Aita Agirre Kulturguneko harmailetan, LH 4 eta 5. mailako haurrentzako. Izena eman behar da liburutegian.

URRIAK 29

- 16:30 Kalabaza eta mozorro tailerra Ludotekan, LH 4, 5 eta 6. mailako haurrentzako. Izena eman behar da www.elgoibarkoizarra.eus webgunean.
- 19:00 Dantza parte hartzaileak, kalegoen plazan. Mozorrotuta joateko deia egin dute.

URRIAK 30

- Gaztaina eta mozorro tailerra Kultur Etxe kanpoan. Familian edo lagunartean hartu daiteke parte.

URRIAK 31

- 18:30 Eske erronda. Esaldi eta kantuak erabiliz trukean gozokiak jasoko dituzte LHko umeek herriko dendetan. Izena eman behar da www.elgoibarkoizarra.eus webgunean.

Mendaron



URRIAK 23

- Gaztelekua apaintzea.

URRIAK 27

- Mozorro beldurgarriak eta desfilea. Ludotekan.

URRIAK 28

- Arimen gaverako apaingarriak eta slime beldurgarria. Ludotekan.

URRIAK 29

- Mozorro beldurgarriak eta desfilea. Ludotekan.

URRIAK 30

- Mozorro lehiaketa eta beldurrezko filma: 'Eliminado'. Gaztelekuan.

URRIAK 31

- 18:00 Umeentzako jolasak. Garagartzako elizpean, Arnok antolatuta, Udalaren laguntzarekin.
- 19:00 Haitzulo beldurgarria. Garagartzako elizpean, Arnok antolatuta, Udalaren laguntzarekin.



Koldo Aranburu Osa

2021eko urriaren 20an hil zen, 67 urte zituela.

*Izan zarena, erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da zugandik jasotako dena.*



SARE
Elgoibar




Koldo Aranburu Osa

2021eko urriaren 20an hil zen, 67 urte zituela.

Gure artean betiko!

ehbildu Elgoibar



Koldo Aranburu Osa



Beti
behartsuenen
alde,
lortu arte
jarraituko
dugu

QUINTASUNA



Idotorbeko igoerako errekorra minutu erdian ondu du Iker Eskibelek

Bistan da txirrindulariak Idotorbeko aldapa pikoetan lehiatzeko gogoz zeudela, urtebeteko etena eta gero. Eta ikusleak ere txirrindularitza egarriz zeuden, jende ugari batu baitzen azken metroetan urriaren 12an jokatu zuten Idotorbeko igoeran. Inoizko igoerarik azkarrena izan da aurtengoa, lehen hiru sailkatuek ondu baitzuten lasterketako errekorra, Iker Eskibelek 2017an ezarritakoa. Lau garrengoz proba irabazi zuen Eskibelek (Eskoriatza, 1993) berak jan zion koskarik handiena bere aurreko errekorri, 29 segundoan ondu baitzuen, 12 minutu eta 48ko denbora eginda. Bigarren egin zuen Pello Osoro eibartarrak 13:03an osatu zuen proba eta 13:11ko denbora egin zuen Mikel Perez de Obanosek, hirugarren sailkatu zenak. Guztira 35 txirrindularik hartu zuten parte Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari eskolak antolatutako proban.

Angel Mugica txirrindulari ohia hil da

Herriko txirrindularitza aitzindaria izan zen Angel Mugica Suarez hil zen joan den urriaren 8an, 80 urte zituela. Txirrindularitzarako zaletasuna zuten herriko bi kuadrillek, -Beti Egarrik eta Umore Onak- sortu zuten Gure Bide Txirrindulari elkarte 1959. urtean, Elgoibarren txirrindularitza bultzatzeko asmoarekin. Handik gutxira, I. Gure Bide Proba Handia deitu zioten ziklo-kros proba antolatu zuten Elgoibarren. Sasoi hartako txirrindulari entzutetsuenek hartu zuten parte 1960ko urtarrilaren 3an jokatu zen lasterketan, eta Anton Barrutiak irabazi zuen. Angel Mugica izan zen sailkapeneko lehen elgoibartarra. Eratu berri zuten Gure Bide Txirrindulari Elkarte izeneko txirrindulari taldearekin lehiatu zen. Mugicarekin batera Jose Luis Ansola elgoibartarrak eta Isidro Arroitaiauregi markinarrak osatzen zuten taldea. Gure Bide taldearen lehen urte hartan, 52 lasterketatan lehiatu zen Angel Mugica, eta Berangokoarekin batera Orion lortu zuen hirugarren postua eta Geta-rian lortutako bigarren postua nabarmendu behar dira. Denboraldi amaieran Touring-Caoba taldeak fitxatu zuenean laga zuen Mugicak herriko taldea.



Urrezko Aizkolari Txapeldunen Liga irabazi du Hodei Ezpeletak

Nafarroa Oinezeko Hegan Oinez jaialdiko egitarauaren barruan jokatu zuten urriaren 17an Urrezko Aizkolari Txapeldunen Ligako finala, Lizarran. Urrez Deustun eta Leitzan jokaturako finalerdietan sailkatutako lau aizkolariak ziren finalean aritzekoak, baina hiru lehiatu ziren azkenean, laugarren aizkolaria, Suhari Rodriguez Paolla, gaixorik zegoelako. Hodei Ezpeleta mendarorria gailendu zen, bera izan baitzen azkarrena jokatu zituzten lau probetatik hirutan. 17 minutu eta 49 segundoan bukatu zituen lanak (erlojuaren kontra 40 segundo; zutik, 1'24"; abiadura, 3'03" eta lan erdira, 12'42"). Jokin Urretabizkaia Basozabal aizkolaria donostiarrek egin zuen bigarren, Ezpeletarengandik 54 segundora.



Bigarren garaipena jarraian eta errekorra Maite Maiorarentzat Hiru Haundiak mendi lasterketan

Euskal Herrian mendiko iraupen-lasterketa erreferentea da Hiru Haundiak, Gorbea (1481m), Anboto (1331m) eta Aizkorri (1523m) tontorrek batzen dituelako 101 kilometroko ibilbidean. Urriaren 9an jokatu zuten probaren 22. edizioan marka guztiak hautsi zituen Maite Maiorak. 12 ordu eta 9 minutu behar izan zituen Araiako helmugara iristeko. Hala, 40 minutuan ondu zuen Silvia Triguerosek 2014an ezarri zuen errekorra (12:48:22). Maiorak eginiko denbora apartaren erakusgarri da sailkapen nagusiko bosgarren postua eskuratu izana. Errekorra ontzearekin ez zela itsutu adierazi zuen Maiorak proba amaitu berrian. "Ilusioa nuen marka ontzeko, baina horren bila gehiegi joan gabe. Gorbean, baina, proba irabazteko aurkaririk ez nuela jabetu nintzen eta duela hiru urteko Maite izan zen nire aurkaria, eta errekorra ontzea motibazioa", esan zuen. Izan ere, egungo txapelduna zen mendaroarra, 2018ko ekitaldian garaipena eskuratu baitzuen, bere lehen parte-hartzean. Dozena bat elgoibartarrek ere hartu zuten parte



Arg.: Fotolosu



Hiru Haundietan, eta horien artean Julen Salaberriak egin zuen denborarik onena: 14:37:11 (47. postua).

Mugertza krosa 2022ko urtarrilaren 9an jokatu da

Euskal Herrian jokutzen den atletismo ekitaldirik garrantzitsuenaren bueltan da. Urtebeteko etenaren ostean, Juan Mugerza Nazioarteko krosaren 78. ekitaldia 2022ko urtarrilaren 9an jokatu dela jakitera eman du Mintxeta Atletismo Taldeak.

Krosari lotutako albiste txarragoak ere izan dira asteon, hala ere. 2018ko Mugertza krosa irabazi zuen Agnes Tirop labankadaz hilda aurkitu baitute bere etxean. Kenya mendebaldean dagoen Iten herrian bizi zen Tirop, 25 urteko saltakari kenyarra, eta itxura guztien arabera, indarkeria matxistaren biktima izan da. Poliziak haren senarra atxilotu du, hilketa egotzita. Mugertza krosak 75 urte bete zituen ekitaldian lehiatu zen Elgoibarren Tirop, eta bigarren egin zuen, Ruth Jebet atzetik. Alabaina, doping kasu bategatik (EPOa atzeman zioten) lau urterako zigortu zuten Jebet, eta 2017ko abenduaren 1etik aurrera lortu zituen garaipen eta emaitza guztiak baliogabetu zituzten, tartean 2018ko Mugertza krolean lortutako garaipena. Hala, bigarren egin zuen Tirop ageri da urte hartako irabazle.



Azaroaren 20an jokatu dute Karakateko Igoera

Koronabirusaren pandemiagatik jokatu edo egin gabe egon diren beste hainbat kirol eta kultur jardueraren moduan, Karakateko Igoera ere bueltan da. Azaroaren 20an jokatu da probaren 27. edizioa izango dena. Morkaikotik aurreratu dute pandemia aurreko Karakateko Igoerak modukoa izango dela, salbuespenen batekin: irteeran musukoa jantzita eduki beharko dute parte hartzaileek. Kalegoen plazako frontoiko frontisetik irteten dira saltakariak, 11:00etan puntuan, eta Karakateko zubia pasa artean jantzita eraman beharko dute musukoa. Era berean, antolatzaileek 125 lagunetan jarri dute parte hartzaileen muga.


Leire Egañak zazpigarren egin zuen Espainiako Ehiza Xehe Txapelketan



Espainiako Ehiza Federazioak banatuta antolatu ditu estreinako emakumezkoen eta gizonezkoen Espainiako Ehiza Xehe Txapelketak. Joan den asteburuan jokatu zuten emakumeena, txapelketa honen zortzigarren edizioa. Erkidegoetako txapelketak irabazi zituzten 33 ehiztari lehiatu ziren Campo de Criptanan (Ciudad Real, Espainia) jokatu zuten txapelketan, eta Carla Reig Giner valentziarrak eskuratu zuen titulua, hamar untxi ehizatuta. Ceutako ordezkari Inmaculada Vallejo sailkatu zen bigarren postuan 1.750 punturekin. Vallejok zazpi untxi ehizatu zituen. Extremadurako Maria Fernandez Ortiz sailkatu zen hirugarren postuan, bost untxi ehizatu eta 1.250 puntu batuta. Leire Egaña Bastida elgoibartarrak podiumera igoteko aukerak izan zituen, -untxi bat gehiago ehizatuta lortuko zuen-, baina zazpigarren postua eskuratu zuen, seigarren sailkatuarekin berdinduta, biek 1.000 puntu batu zituztelako. Euskadiko txapelketa irabazita sailkatu zen Egaña Espainiakorako, eta Euskadikoan txapeldunorde izan zen Ivan Bello Serna elgoibartarra, gizonezkoen senior mailan.

Madeira Sky Race mendi lasterketa irabazi du Mayi Mujikak Portugalen

Skyrunners Munduko Kopako lasterketen artean teknikoenetarikoa den Madeira Sky Race lasterketa jokatu zuten urriaren 9an Portugalgo Madeira uhartean. Ibilbide gorabeheratsuan eta aldatu korrean jokatzeko da eta 55 kilometroko luzera eta 4.121 metroko desnibel positiboak ditu. Parte hartzaileek II. graduako zailtasuna zuten igoerak gainditu behar zituzten, amildegi ertzetan, bai basoan eta baita itsasertzean ere, horiek baitira Madeira uharteko orografiaren ezaugarri nagusiak. Euskal selekzioa ordezkatu zuen Mayi Mujika bikain egokitu zen ingurura eta garaipen handia eskuratu zuen emakumezkoetan. 7 ordu eta 16 minutu eta 13 segundoko denbora behar izan zuen Santana herrian hasi eta bukatu zen ibibidea osatzeko. Natalia Mastrotta italiarrak egin zuen bigarren (07:52:36) eta Oana Mihalcea errumaniarrak hirugarren (07:53:41).



LAGUNAK
colchonería textil hogar

Mila esker
zuen konfiantzagatik!

**Neguko bilduma
berria!**
Etor zaitez ikustera.



San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

Eztittan egon: Andra-gizon horrek, ezkondu berrittan, eztittan daude.
(Elkarrekin) gozo-gozo daudela adierazteko.

Elgoibarko artisauen azoka egingo dute bihar, Maalako parkean

Bihar itzuliko da Maalara Elgoibarko artisauen azoka, ARTalde elkarteak antolatuta. Elgoibarko artisauak hartuko dute parte, eta besteak beste, bitxiak, oihalak, margoak eta xaboiak erosteko aukera egongo da. 10:00etatik 14:00ak aldera jarriko dituzte postuak. Aurtengo edizioan hamar artisauak hartuko dute parte: Xarlem, Magi, Bitxi bitxi, Darama bitxiak, Azpis bags, Bitxi Bitzi Bitxi, Zu+Ni, Emi Nogales, Nieves Maidagan, Ana Mosaculak.



126 argazki eta 132 marrazki aurkeztu dituzte 2022ko egutegia osatzeko lehiaketara

2022ko egutegia osatzeko lehiaketako gaia *Elgoibarko baserrietako bizimodua, ohiturak eta lanak* izan da eta Elgoibarraren jaio, bizi, ikasi edo lan egiten dutenek izan dute lehiaketan parte hartzeko aukera. Argazki lehiaketan 32 lagunek hartu dute parte, eta 126 argazki aurkeztu dituzte guztira. Epaimahian, Udaleko ordezkarienez gain, Ongarri argazkilari taldeko kide bat eta Debemeneko ordezkari bat ere izan dira. Epaimahikideek 12 argazki aukeratu dituzte egutegi handirako eta beste argazki bat txikirako. Hauek izan dira sarituak: Sare Gurrutxaga Loiola, Sergio Nievas Prol, Maria Exposito Murillo, Jose Ramon Cabrera Cid, Clara Mejías Barrios, Alberto González Igartua, Gurutze Ariznabarreta Acha (2 argazki saritu dizkiote), Oier Ramos Miguel, Larraitx Zialtzeta Aduriz (2 argazki saritu dizkiote), Vicente Guinea González de Artaza eta Maite Loiola Zelaia.

Marrazki lehiaketa

Egutegirako marrazki lehiaketa Herri Eskolarekin eta Ikastolarekin elkarlanean antolatzen du Euskara Sailak, eta LH5eko ikasleei zuzenduta dago. Aurtengoan 132 ikaslek parte hartu dute. Epaimahaia Udaleko ordezkariak eta Gemma Monreal



margolariak osatu dute, eta ondorengo ikasleen lanak saritu dituzte: Manex Galdos Urbieta, Asier Diez Zambrano, Aimar Vigaraz Vazquez, Scarlett Avendaño Moreno, Garazi Garmendia Jauregi, Eider Gabilondo Leyaristi, Jare Juaristi Viñaras, Ane Astigarraga Etxeberria, Unai Aizpurua Zabala, Jone Alegria Etxaniz, Axier Sagasta Perez eta Yousef Taghi.

Egutegia aurkezteko eta sariak banatzeko ekitaldia abenduaren 1ean egingo dute, 19:00etan, Aita Agirre kulturegunean Areto Nagusian.



'Losers' antzezlan gaur, Herriko Antzokian

Txalo Produzioak taldearen eskutik iritsiko da gaur *Losers* antzezlan Elgoibarko Herriko Antzokira. Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia izango dira protagonistak. Manuel eta Sandra adinean aurrera doaz. Ia 40 urte dituzte, eta adin horretarako gizarteak jarritako baldintzetatik ez dute bat bera ere betetzen: Ez daukate bikote-kiderik, ezta umerik ere eta diruz urri dabilta. Euren buruak galtzailatzat dituzte. Manuel eta Sandrak bakarti bizitzeari utzi nahi diote. Emanaldia 20:30ean hasiko da. Sarrerak www.herrikoantzokia.eus webgunean erosi daitezke aurrez, eta so-bratuko balira, Herriko Antzokiko txarteldegian bertan ere jarriko lituzkete salgai.

Angel Ispizuaren argazki erakusketa antolatu du Ongarrik

Itsasoaren aurrean argazki bilduma jarriko du ikusgai gaur zortzi Angel Ispizua argazkilariak Kultur Etxeko erakusketa gelan. Mario Benedetti poemagilearen lan baten zati batek inspiratuta hasi zen Ispizua duela bi urte argazki bilduma hau osatzen. Igerilari eta urpekari trebea da, baina oraingoan itsasoaren aurrean geratu da, kirolarien joan-etorriekin liluratuta, haurrekin jolasten, hondartzan pasiaran... Kantauriko kostaldean ateratako argazkiak jarriko ditu ikusgai. Gurasoak umekin hondarrezko gazteluak egiten, herriarrak eguzkia hartzen, gizon eta emakumeak talde txikitik zutik berriketan edo bainulariak ageri dira, besteak beste, argazkietan. Azaroaren 13ra arte egongo da ikusgai erakusketa, astelehenetik zapatura, 18:30etik 20:30era.



Lupe Lekuonak umeentzako ipuinak kontatuko ditu gaur Mendaron

Urriaren 24an Liburutegiaren Eguna dela-eta, ipuin kontaketa saioa antolatu du Mendaroko Udalak gaur arratsalderako. Lupe Lekuona (Hondarribia, 1964) ipuin kontalariak 4tik 8 urtera bitarteko umeentzako ipuinak kontatuko ditu. Lekuonak kutxa batekin egiten ditu ipuin kontaketa saioak, eta kutxa horretan panpinak eta ipuinak biltzen ditu. Haren bidaietan leku desberdinak ezagutzeaz batera, horietako kondairak, ipuinak eta panpinak batzen ditu. Gonbidapenak doan eskura daitezke Liburutegian. Mendaroko Udaltzatza Aretuan izango da, 18:30ean hasita. Gehienez 35 lagunentzako lekua egongo da.

Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasi nahi dutenentzako dirulaguntzak

Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo edo barnetegietan euskara ikasi duten herritarrei dirulaguntzak emango dizkie Elgoibarko Udalak. Dirulaguntza 2020-2021 ikasturtean euskara ikasketak egin zituzten elgoibartarrei dago zuzendua, eta dirulaguntza eskatu zutenen artean 24 herritarren eskaerak onartu ditu Udalak. Guztira, 2.642 euro banatuko ditu.

Horrez gain, 2020-2021. ikasturtean euskara ikasten aritu diren ikasle, pentsiodun, erretiratu eta 0-12ko haurrak dituzten gurasoek matrikula erdia ordaintzeko laguntza jaso dute, Udalaren finantzazioari esker.



Jose Antonio Laspiur Ibarra

2021eko urriaren 19an hil zen, 93 urte zituela.

**Zure ondoan bizitza pozgarria izan da.
Ez zaitugu ahaztuko.**

Egotoki Elkarte



Angel Mugica Suarez

2021eko urriaren 8an hil zen, 80 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



LANA.....

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko prest nago, etxeko langile moduan.

☎ 643 977 786

Adinekoak eta umeak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukalde lanetan aritzeko prest nago. ☎ 602 047 812

LH eta DBHko klase partikularrak emateko prest nago, arratsaldetan. Magisteritzako ikasketak ditut. ☎ 688 626 156

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 662 460 266

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan eta baita asteburuetan ere. ☎ 643 584 198

Adinekoak zaintzeko prest nago. Zainketarako ikasketa ofizialak eginak ditut. ☎ 632 304 656

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka. ☎ 602 490 595

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Etxeko eta atarietako garbiketarako ere egiten ditut. Sukaldari laguntzaile moduan ere lan egingo nuke. ☎ 602 047 812

Eskaintzak

Jatetxe batek sukaldea garbitzeko langilea eta asteburuetarako zerbitzaria behar ditu. ☎ 659 539 861

Asteburu eta jai-egunetan jatetxe batean lan egiteko zerbitzaria behar da. ☎ 659 539 861

ETXEBIZITZAK.....

Apartamentu bat alokatzen dut Elgoibarren, pertsona bakarrarentzat edo bikote batentzat aproposa. ☎ 679 866 923

BESTELAKOAK.....

Gure Bide elkarteak bazkide egiteko aukera aukera eskaintzen du. Informazio gehiago nahi izan ezkerro, mezu bat idatzi behar da gurebide@gmail.com helbidera.

AHMED
ilcapaindegia
HITZORDUA ESKATU: 691 966 856

Lokalez aldatu dugu! Orain, Jausoro plazako 5. atarian gaude, behean

Ille mozketak

Bizarrak kendu eta bukuritzen ditugu

Orduetgia:
 9:30-14:00
 16:30-20:30

administradores
 Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
 Euzko Erria (Administratzaileen Sarakile Kontakua)

ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administratzaile-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitateak enpresa bat kontratatu du eraikinaren faxada berritzeko. Lanak bukatu dituzte, baina oraindik zenbait gastu ez zaizkio ordaindu enpresa eraikitzaileari, jabe batzuek oraindik ez dituztelako ordaindu obra-kuota guztiak. Batzuek, gainera, jakinarazi dute ez dutela beste ordainketarik egingo. Jakin nahi nuke zer egin dezakegun kuota guztiak ordainduta ditugun etxe jabeok.

Gai horri erantzuteko, alderdi hauek hartu behar ditugu kontuan: Jabe-kideen Komunitateak hartuko ditu bere gain hirugarrenetako dituen zorrak, bere alde dituen fondo eta kreditu guztiekin. Modu subsidiarioan, eta kasuan kasuko jabeari ordainketarako deia egin ondoren, hartzekodunak jo dezake kasuan kasuko prozesuan alderdi izan den jabearen aurka, ordaindu gabeko zenbatekoan dagokion kuotaren arabera. Jabeek ordainketari uko egin ahalko diote, egiaztatzen badute komunitateko ordainketa guztiak egunean dituela.

Ondorioa: zure komunitatetik transmititzen didazun egoera dela eta, enpresa eraikitzaileak komunitatearen aurka jo ahal izango du ordaindu gabeko zenbatekoa erreklamatzeko. Era subsidiarioan zuzendu ahal izango da ordaindu gabeko kuotaren zenbatekoa zor duen jabe bakoitzaren aurka, jabe horrek komunitateari zorra ordaintzeko betebeharra betetzea eragozten badiu. Enpresak komunitatearekin kuoten ordainketa egunean duen jaberaren baten aurka jotzen badu, jabe horrek ordaintzeari uko egin ahalko dio.

ASESORIA GO/R
AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
 San Bartolome, 2



ZORIONAK

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARREneko bulegora, barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo 688 634 044 bidalita.



Zorionak, **Katalin!** Gure etxeko txikiari mila musu, lehenengo urtebetetzean.



Zorionak, **Libe,** zure 7. urtebetetzean. Mila kilo patxo etxekoan partez. Asko maite zaitugu.



Abiada bizian doaz urteak eta baita zu ere. Baina segi horrela gure bizitza argitzen. Zorionak, **Izar!**



Zorionak, **Naroa,** astelehenean 6 urte bete zenituelako! Oso ondo pasatu genuen. Muxu bat familiakoan, eta bereziki ahizpa Malenen partez.



Zorionak, **Gorka,** igandean 10 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat familiakoan eta bereziki, Maiaren partez.



Zorionak, **Zoe,** txapeladuna. Txinara eta buelta maite zaitugu! Gure oparirik onena zara. Guraso, osabazteba, lagun eta familiakoan partez. Muxu bat!



Zorionak, **Manex,** hilaren 25ean 10 urte egingo dituzulako. Aita Robertoren eta aiton-amon Jose eta Carmenen partez. Muxu bat.

11 Urteko harrizkoak
646 563 706

Depilazio hoberenerako, espezialistarik onenak

TRIPHASE

Urrezadi 9. beheko - Elgoibar - www.kimabozestatu.net/koibor.com

Hiru sistema batean

Neodimioa
Eraginkorra ile ilanean, azal argian edo gaztara-ikelerekin

Diodoa
Eraginkorra ile illean eta larri oso beltzararatas

APL
Eraginkorra da mota guztietako ileetan eta beltzarandu gabeko larriazletan

EXPRESS ESKAINTZAK!

**FWDG 961 483 WBV SPT N WHIRPOOL
ARROPA GARBIGAILU ETA LEHORGAILUA**

599 €
(Dendako prezioa)

103,96 €-ko errenbolsoa oparituko dizugu, * kontsultatu baldintzak. Azken prezioan sartu gabe.



- 9 kg garbitze-karga.
- 6 kg lehortze-karga.
- 1.400 b/min.
- 24 orduko hasiera gerorotua.
- Steamcare: lurrunaren ahalmenari esker, zure arropa freskoago, suabeago eta zimurrik gabe utziko dituen teknologia.
- 6th Sense teknologia: Energiaren, uraren eta denboraren kontsumoa, kargaren arabera.

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

JARDUNALDIAK 2021

ANTZINAKO OGIBIDEAK

IRULEAREN (HILANDERA) ZUZENEKO ERAKUSTALDIA

2021/11/06 larunbata

Ordua: 11:30etik 13:00etara.

Lekua: Makina Erremintaren Museoa.

Sarrera: 5 €. Leku kopuru mugatua. Izena eman behar da.

Emaila: museoa@museoa.eus Tel.: 943 748456 Facebook: [makina.erremintamuseoa](https://www.facebook.com/makina.erremintamuseoa)

Instagram: [makina.erremintamuseoa](https://www.instagram.com/makina.erremintamuseoa). Izena emateko azken eguna 2021/11/05.

ME MAKINA
ERREMINTA
MUSEOA



22 BARIKUA

18:30 Lupe Lekuona ipuin kontalaria, Mendaron. Udaletxean.

18:30 Smash Bros Ultimate bideo joko txapelketa. Aita Agirre kultur kafean. Izena tabernan bertan eman behar da.

20:30 Antzerkia: 'Losers'. Jon Plazaola eta Aitziber Garmendia izango dira protagonistak. Herriko antzokian.

23 ZAPATUA

10:00 Elgoibarko Artisau Feria. AR-Talde elkarteak antolatuta, Maalako parkean.

25 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa taldea: Landa-eremuko emakumeak. Loredi Salegik gidatuta, ILLAn.

19:00 Bilera irekia. Azaroaren 25eko ekitaldiak antolatzeko. Mendaroko udaletxean.

27 EGUAZTENA

19:00 Epeletan literatura tailerra, Jasone Osorok gidatuta. Amets Arzallus eta Ibrahim Balderen 'Miñañ' liburua landuko dute. Gotzon Garate Udal Liburutegian.

29 BARIKUA

19:00 Bideo foruma: 'Nueve vidas'. Haizeak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. ILLAn.

Zinea (Herriko Antzokian)



'Cry macho'

23 zapatua: 19:00 / 22:15

24 domeka: 19:00

25 astelehena: 21:00

'Space Jam: aro berria'

24 domeka: 16:30

ETA, DEBABARRENEAN ZER?

URRIAK 29, BARIKUA

20:30 Bertso saioa, Ermuako Ermua Antzokian.

Euskal Birusa kultur elkarteak antolatuta, San Martin kulturala egitarauaren barruan: Miren Amuriza, Uxue Alberdi, Irune Basagoiti, Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Nerea Ibarzabal. Gai jartzailea, Maite Berriozabal. Sarrerak salgai daude dagoeneko, 10 eurotan, eta Lobiano Kulturgunean erosi daitezke (astelehenetik ostiralera 9:00etatik 21:00etara), Internet bidez Kutxabankeko webgunean.

Irailean hildakoak

- **Zorione Gorostiza Etxaniz**
96 urte, irailak 15
- **Jose Esnaola Altzibar**
69 urte, irailak 19
- **Felix Baltzola Astarloa**
93 urte, irailak 20
- **Mercedes Fernandez Penedo**
85 urte, irailak 21
- **Maria Calvo Lorenzo**
90 urte, irailak 24

Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (*)

22 BARIKUA	23 ZAPATUA	24 DOMEKA	25 ASTELEHENA	26 MARTITZENA	27 EGUAZTENA	28 EGUENA	29 BARIKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego

* Fernandez:
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauz: 22:00-09:00
Arantzazu Izpizua, Ibarkurutze, 7 (Eibar)
943 201 912



Julian Arrieta Bergaretxe

2021eko urriaren 16an hil zen, 94 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.

***Izan zarena,
erakutsi duzun kemena,
gure artean geldituko da
zugandik jasotako dena.***

Etxekoak



IV. URTEURRENA

Nizeto Garate Goiarzun

2017ko urriaren 10ean hil zen, 94 urte zituela.

***Duela lau urte joan bazinen ere,
ez gaituzulako sekula utzi.
Eskerrik asko, aitona.
Askok maite zaitugu.***

Gloria eta etxekoak



2020/11/25



*Carlos
Lehr Iraegi*

2021/03/09



*Maria Luisa
Sangrador Epelde*

2021/07/12



*Jacinto
Sanz Urrutia*

2021/10/17



*Mari Karmen
Altuna Atxaga*

Inoiz ez zaituztegu ahaztuko.

"ZORTZIROK" LAGUN-KUADRILLA



'Herriak egiten du herria'

kanpaina abiatuko du Errigorak

Udazkeneko kanpaina jarriko du martxan Errigorak urriaren 23tik azaroaren 11ra. Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz. Aurten, Nafarroako ekoizleek ekoiztutako produktuz osatutako hiru otar eskainiko dituzte, eta batutako diruaren %25 zonaldeko euskalgintzari bultzada emateko erabiliko dute. Eskerak www.errigora.eus webgunean egin behar dira, baina kanpaina amaitzen denean Elgoibarren eta Mendaron ere egongo da otarrak jasotzeko aukera.

SASKI BELTZA 55 €

Orburuak
Zainzuri zuriak
Pikillo piperrak
Oliba olio birjina estra
Botila ardoa
Melokotoia almibarrean
Melokotoi marmelada
tomate frijitua
Potxak
Teilak
Kardua
Mahats zukua
Piper mami

SASKI BERDEA 65 €

Orburuak
Zainzuri zuriak
Pikillo piperrak
Oliba olio birjina estrara
Botila ardoa
Ardo ozpina
Dilista lehorrak
Barazki menestra
Arroza
Pasta
Sagar zukua
Teilak

SASKI ZURIA 75 €

Orburuak
Zainzuri zuriak
Pikillo piperrak
Oliba olio birjina estra
Kriantza botila ardoa
Ardo zuri apartua
Patxarana
Pikilo marmelada
Txokolatezko zigarretak
Patxaran pastak
Polboroiak

urriak 23 - azaroak 11

Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka

Herriak egiten du herria

Saski beltza, berdea edo zuria. Egin eskaera eta lagundu hauen baliorearen %25arekin Nafarroa hegoalde eta erdialdeko euskalgintzari.



errigora.eus

aek

ikastolenei kartea

Sortzen

